

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete behar da hutsik geratu delako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena: Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehen-tasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena: Hautagaien lehen-tasun ordena ezarri ondoren, eta Legutioko Udalak hurrenkera horren arabera izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio, hurrenez hurren, aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, bost egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena: Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena: Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena: Lanpostuaren ezaugarriak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailetza.

Taldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 27.802,35 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabe.

Legutio, 2026ko otsailaren 17a

*Alkatea*

*NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR*

### ERANSKINA

Nik, ..... jaunak/andreak (NANA: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; telefono zenbakia: .....; estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: ..... azpieskalakoa; gaur egun ..... lanpostuan dihardut, ..... toki erakundeetan, ..... (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: ..... / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

### ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

### ESKATZEN DUT

Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

- NANaren fotokopia.
- Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- Pilaketagatik lanpostua eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 2026ko .....aren .....(a).

Sinadura: .....